

## EUSKERARAKO HIZTEGIA

*Egileak:* «Bostak bat» taldea: Patxi Uribarren, Ricardo Badiola, Luis Baraiazarra, Juan Luis Goikoetxea eta Gotzon Aurrekoetxea.

*Orrialdeak:* 1.015

*Prezioa:* 2.650 pta.

Aldizkari honetako lehenagoko ale batetan Patxi Uribarren idazleak iragarri ziguncz, argitaratua izan da *Euskararako hiztegia* deritzona.

Esku artean dugula eta egileek diguten aurkezpena irakurri ondoren honakook direla hiztegi horren bereizgarritik nagusienak esan genezake:


- 1) Hitzak euskaraz definituz eskaintzen dituen gaur egungo hiztegi, oso, bakarra izatea.
- 2) Sarrera-hitzak, egileek iturriak aipatzerakoan esaten dutenez, euskararen erabilera-maiztasunaren erizpidari jarraituz hautaturik ditu.
- 3) Euskara errazez eta ulerkorrez egina agiri da, euskara ikasten zein sakontzen ari direnentzat eskuliburu ezin hobea gertatzen delarik.
- 4) Edukinitan mugatua ageri baldin bada ere, 13.000 esanahitik gora biltzen ditu, eguneroko harreman ge-

hienetarako baliagarri bihurtzen delarik.

- 5) Euskara hiritar, batu, moderno, standarra eskaini nahi izan digute, baina lehendikako euskal hitzak baztertu gabe: «Hizkuntzaren erabilera normalizaturantz jotzen ahalegin biziak egin ditugu (diote) orain arte baturantz emandako urratsak finkatuz eta hitzen esannahi semantikoari ingurua mugatuz Normalizaziorantz jo dugula esatean, euskara moderno, standard eta batua esan nahi dugu».
- 6) «Sinonimoen hiztegia» burutu zutenen bezala, era didaktikoz eginiko hiztegia eskaini nahi izan digute ahalik eta erabilgarrien bihurtzeko asmotan: «Hiztegi orotan egin ohi den bezala, lehenago eta orain, ikerketa sakon eta neketsuen bidez lortutakoa bildu, galbae didaktikoen iragazi eta erraz jateko opil bero, bigun gisa eskaintzeari gagozkio, batez ere, lan honetan».
- 7) Zer esanik ez, hiztegi hau euskaldunei zuzendua izan da, hots, euskara hutsean bizi nahi duten urreei, gazteei zein adinekoei, inguruetako erderetara jo beharrik gabe baliatzeko eskuko-tresna erabilgarria eskainiz.
- 8) Ba dauka *eranskin* bat ere (letra txikiagoz aurkeztua) *euskaratik gaztelera-frantse-ingeles hizkuntzetarako* baliakideak dakartzana, hizkuntza horiek ikasten zein itzulpen lanean dihardutenei laguntza eskaintzeko ezarria, nonbait.

Dudarik gabe, ordu eta ahalegin isil eta luzeen emaitza ederra dugu. Euskarak hain premiazko zuen hutsunea betetzera datorrena: «Euskara, egungo gizarte berri, aldakor, aurreratu honetan leku egin nahirik, hartara moldatu nahirik ari denean, urrats bat eman nahi dugu aurrerantz, euskaldunok auzoko erderetara jo beharrik izan gabe, gureaz balia gaitzen».

Hori dela eta, nonbait, eskaini digute urrats gisa, lanean jarraitzeko asmo biziak adieraziz: «Ba dakigu oraindik ez dugula gailurra jo! ezta hurrik eman ere. Abiada berriari ekin besterik ez diogu egin».



Bestalde, eguneroko lan orduetatik kanpo aritzeko ahalegin astunegia izan dela aitortzen dute. Talde-lanak eta euskaraz honelako hiztegi bat burutzeko gogo biziak bakarrik ahalbiderratu du honako hiztegi mardula burutzea... bazen hor hutsune larririk ere: euskaldunontzat euskaraz egindako hiztegirik eza; hau da, auzoko erdaretan hain oparo ageri direnen antzeko azalpen-hiztegi baten gabezia nabaria. Beharrizan horrek eraginda, buru eta bihotz ekin genion lanari. Sei lankideren etsi gabeko ekintzaren emaitza duzu liburu hau».

Aldizkari honen orrietatik, hasitako bide aldapatsu horretatik, eragozpenak eragozpen, etsi gabe aurrera iharduteko aupada indartsua jaurti nahi diegu langile porrokatu horiei.

#### **Zenbait aipamen:**

*Argia* aldizkarian (asterokoa) «Baten bat harritu daiteke beste hiztegi berria atera delako, baina hau ordea, ezberdina dugu, lehenengo benetako euskal hiztegia delako»... «Honela, irakurle

## EUSKARARAKO HIZTEGIA: Zenbait zehaztasun zenbakitan

	Definizioak (Sarrerakoak)	«Ikus» Sarrerakoak	Definizioak (Barrukoak)	«Ikus» Barrukoak	Sinonimoak	trudjak	Adibideak	Euskaratik (gar./fran./ing.)	Gaztelera Sarrerak	FRANTZESA (Sarrerak)	INGELESA (Sarrerak)
A	1.493	75	306	44	384	60	424	1.496	1.149	772	607
B	1.217	70	298	18	153	62	514	1.204	315	458	619
C	—	—	—	—	—	—	—	1.298	—	1.104	1.089
D	320	33	72	11	51	6	106	329	657	579	631
E	095	91	218	24	174	35	182	1.085	763	656	588
F	163	5	35	2	16	2	74	167	363	299	502
G	657	58	204	8	147	31	100	640	261	301	332
H	659	35	200	19	226	21	337	649	405	213	394
I	743	74	104	12	166	34	554	737	461	417	396
J	202	18	29	7	54	5	82	198	88	87	80
K	685	78	127	16	116	38	158	686	7	9	62
L	634	58	137	19	170	30	278	629	316	276	394
M	860	61	213	25	189	32	351	838	631	566	531
N	299	46	36	10	73	1	205	292	187	170	207
O	469	34	73	8	155	19	225	468	123	196	202
P	631	57	114	18	142	33	344	621	970	949	713
Q	—	—	—	—	—	—	—	—	—	39	36
R	5	5	—	—	—	—	—	—	563	542	497
S	576	46	138	15	214	27	379	560	587	628	1.252
T	699	36	143	22	233	28	479	687	524	451	578
U	374	19	73	3	155	15	298	361	67	43	162
V	—	—	—	—	—	—	—	—	276	262 w = 2	180 w = 3
X	64	2	20	—	24	—	24	60	4	4	4
Y	—	—	—	—	—	—	—	—	16	2	27
Z	805	91	184	34	117	26	313	782	41	11	10
<b>GUZTIRA</b>	<b>12.644</b>	<b>988</b>	<b>2.726</b>	<b>315</b>	<b>2.678</b>	<b>498</b>	<b>5.421</b>	<b>12.489</b>	<b>10.110</b>	<b>9.027</b>	<b>10.360</b>

OHARRAK: 1) Definizioak (sarreratakoak + barrukoak: 1.689; hirukoak = 327; lauakoak = 70; bostekoak = 9; seiakoak 3 eta zazpikoak 2) egiatan 15.370 dira.  
2) Sinonimoak (definizioetan datozenak + IKUS dutela datozenak -sarrerakoak zein barrukoak-) egiatan 4.181 dira.

kopuru handiena jaso nahian, definizio zehatz baina errazak egin dituzte, interpretazio anitzzen arazoa gaingituz». «Hiztegi bikaina lehen behako batez behintzat. Egileek, garbi esaten dute lan erabatekoa ez dela, hitz jatorrien edota zenbait dialekto lantzen ez dituztenean adibidez. Hala eta guzti ezin zaio lan berri honi bere eundoko garrantzia ukatu, eta hortik aurrera denbora eta jendeak erabaki dezala». (1987-I-11).

*Egin* egunkarian: «Egile taldeak libururen hitzaurrean adierazten duen bezala, era bateko nahiz besteko hiztegien gorakada gertatu atren, bazen hutsune larririk ere: «euskaldunontzat euskaraz egindako hiztegiarik eza», hau da, auzoko erderetan hain oparo ageri direnen antzeko azalpen-hiztegi baten gabezia nabaria.

«Euskarako Hiztegiak bi zati nagusi ditu: hiztegia bera eta eranskina. Hiztegia liburu honen ardatza edo zatirik garrantzitsuena da, sarrera-hitzen definizioak ematen ditucna. Euskarazko edozein hitz bilatzerakoan den hau aurki daiteke liburu honetan: sarrera-hitza (letra beltzez, lehen begiradan erraz bereizteko), definizioak (sarrera-hitzaaren esannahiak adieraziz), adibideak (hitzari argitasuna emateko, esannahia ulertzeko nahiz erabilera jakin erazteko egokitzat jotzen denean) eta sinonimoak (definizioari ulergarritasuna edo erabiltzeko baliabide aberasgarria eskaintzeko asmoz» (1987-I-7).

*Eguna* astekarian: «Lan bikaina «bostak Bat» izenpean aritu den taldeak, hiztegi hau osatzeko egin duena». «aurretik «Sinonimoen Hiztegia» zaukaten kaleratua».

Hiztegia, bost zatitan banatzen da. lehenengoak, *euskeratik euskararako hiztegia* dakarkigu, hitz bakoitzaren definizioa, adibideak eta zenbait sinonimo ipiniz. Zati honek 503 orrialde dauzka. Bigarrenak, euskara-gaztelania-frantsez-ingelesa hiztegia dakarkigu (195 or.). Hirugarrenak, berriz, gaztelania-euskara (95 or.). Laugarrenak, frantseza-euskara (82 or.). Boskarrenak, azkenik, ingelesa-euskara (92 or.). Bazen honelakorik agertzeko garaia. Hiztegi hau Liburutegian edukitzea, obligazioa da. Argi eta garbi». (1987-I-15).